

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



HERNANI PALA

Herriarteko final erdiak, etxean

Paleta Gomako Herrarteko Txapelketako final erdiak gaur jokatuko ditu Hernanik, Azkoitia-
ren kontra, 18:30etan kirolde-
gian. Joaneko partidua izango
da. Bihar, bestalde, umeen
txapelketako finalak jokatuko
dira Tilosetan, 17:00etan. ||

HERNANI FUTBOLA

Ate irekiak, 2008an jaiotakoek

Datorren denboraldiari begira,
2008an jaiotako eta futboleko ari-
tu nahi duten mutilentzat ate
irekiak egingo dira gaur Zubipen.
Hurrena hilaren 13an egingo da,
ordu eta leku berean. ||

HERNANI BITERI

Dantza latinoetako ikasleak, dantzan

Biteriko dantza latino ikastaro-
ko ikasleek ikasturte bukaera-
ko emanaldia egingo dute
gaur, 20:00etan. ||

ASTIGARRAGA UDALA

Ongietorri, herrira

Bertara bizitzera etorri diren
astigarrar berriei ongietorria
egin eta herriko zerbitzuen berri
emango zaie gaur, 17:30etan
Eribera plazan. Astigarrarrei
ere bertaratzeko dei egiten
zaie, elkar ezagutzeko. ||

HERNANI ERABAKI

Antziolan, gaur

Aurrekontu partehartzaileetara-
ko proposamenak egiteko,
Antziolan bilera egingo da
gaur, 19:00etan; bihar,
19:30etan Latsunbe Berrin. ||

URUMEA LAN GATAZKAK

16 greba egun deituta, Gipuzkoako Papergintzan

Asteartean Adegiri aurrean egin zuten kontzentrazioa ELA, LAB eta CCOO, Papergintzan lan hitzarmena lortzearen alde. Astelehenean beste bilera bat egingo da, «inflexio puntu» izan dadin.

GIPUZKOAKO Papergintzan hainbat bilera egin dira, baina LAB, ELA eta CCOO sindikatuen esanetan, «patronalak ez digu egunero papergintzan lan egiten dugunoi inolako hobekuntzarik eskaintzen». Hori horrela, negoziatzaioei bultzada emateko, Adegiri aurrean egin zuten kontzentrazioa asteartean, eta beste bilera bat egingo dute ekainaren 10ean.

Bilera horretan proposamen bat helaraziko diote sindikatuek Adegiri, eta bilera «negoziaketa hauetan inflexio puntu bat izan dadin» espero dute. Horrela, «Gipuzkoako papergintzak bizi duen egoera oso ona» denez, «horren isla da den negoziaketa» eskatu dute: «soldata igoera garrantzitsuak, lanpostu berriak, lan erreformen aurkako blindajeak, diskriminazioen desagertzea eta lan baldintzak hobe-



Asteartean Adegiren aurrean egin zuten kontzentrazioa, ELA, LAB eta CCOO deituta.

tzen dituzten baina inolako kostu ekonomikorik suposatzen ez duten eskaerak».

16 greba egun urrira arte
Astelehenean gertatzen dena-

ren esperoan, sektoreko delegatuek greba egunak proposatuko dituzte, «papergintzako langile asanbladatan berretsiak zain daitezten». Denera, 16 greba eguneko proposamena

egin dute, urrira arte: ekainaren 19 eta 20a eta 26 eta 27, uztailaren 3 eta 4 eta 10 eta 11, irailaren 18 eta 19a eta 25 eta 26a, eta urriaren 2 eta 3a eta 9 eta 10a. ||

HERNANI ERRUGBI ELKARTEA

Garagardoa, musika eta lehia, lau egunetan

Gaur 18:00etan irekiko dira barrak, Atsegindegin, eta 19:30etan inaugurazioko hitzaldia emango dute Juanito Rodriguez eta Joxe Elosegik. Larunbatean errugbi barneratzaile txapelketa ere egingo da.

ERRUGBI Elkartearen berriro ere antolatu du Garagardo Azoka; gaurtik igandera bitartean egingo da Atsegindegin. Jan edanaz gain, musika ere izango da, eta larunbatean, errugbi barneratzaile txapelketa.

Gaur eta bihar goizez; asteburuan egun osoan
Inaugurazio ekitaldia 19:30etan

egin da, eta bertan, Juanito Rodriguez presidentek eta Joxe Elosegik zuzendaritzako kideak urteko balorazioa eta datorren denboraldiko erronken berri emango dute.

Baina garagardoak dastatzen hasteko aukera arratsaldeko 18:00etan irekiko da, bai gaur eta baita bihar ere. Era berean, sukaldea 20:00etan ire-

kiko da gaur; 19:30etan bihar, eta 23:00ak arte eskatu ahal izango da jatekoa. Itxi, berriz, egunero, gaueko 00:00etan.

Larunbat eta igandean, bestalde, eguerdiko 12:00etan irekiko dira barrak, eta sukaldea, 13:30etatik 15:30etara eta 19:30etatik 23:00etara. Denboraldi bukaerako bazkaria igandean, 14:00etan egingo da.

Bide batez taldea eta lehia
Giro onik ez da faltako azokan, egunero, eta gainera, larunbat gaueko 21:30etan hasita, Bide batez trikiti taldeak joko du.

Bestalde, larunbatean errugbi barneratzaile txapelketa egingo da Landaren, 15:00etan, 8 talderen artean. Festa borobildu, noski, azokan egingo dute; sari banaketa, 21:00etan. ||

Zorionak Irati Jauregi!

5 urte

Zorionak Eihar Barrutiabengoa Arotzena!

4 urte

AKELENEA
Eretegia - XIX Mendeko Sagardotegian

Menua
3 hasierako
Arraia
Haragia
Postrea, ogia, kafea

27€
(BEZ barne, edaria aparte)
Enkarguz

Koldo eta Fina

Oialume bidea 57 - 20115 Astigarraga - 943 333 333

Tripontzi jatetxea

PINTXOAK
RAZIOAK
ENTSALADAK
PLATER KOMBINATUAK
ARRAI FRESKOAK

ANDRE KALEA, 11 - HERNANI
943 555 724

GUÑEA

GURE ETA ZURE TOPAGUNEA

Osteguna, ekainak 6
19:00etatik 21:00etara

Ardo dastaketa,
Guadalajarako Finca Río Negro bodegaren eskutik

6€



GAUR

Lainoak eta urdinguneak tartekatuko dira zeruan, eta tenperaturak gora egingo du. Dezentente epelduko du. Orduak aurrera egin ehala, hego-haizea indartu egingo da. **Min.10° / Max.24°**

BIHAR

Haizea oso zakar ibiliko da; hego-mendebaldetik goizean, eta ipar-mendebaldetik arratsaldean. Zeruan lainoak eta urdinguneak tartekatuko dira; arratsaldean euria ere egin dezake. **Min.13° / Max.20°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Castilla** Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** **Gauzez:** **Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**

HERNANI AURKEZPENA

«Bortxaketaren kultura aldatzea» helburu 'Nik sinesten dizut' liburuak

Samara Velte idazlea bera izango da gaur Biterin, 18:30etan, liburua aurkezteko. 'Manada' auzia ikuspegi kritiko batetik aztertuko du.

BERDINTASUN Kontseiluak eta Udal Berdintasun Arloak antolatuta, Samara Velte idazlea Biterin izango da gaur, 18:30etan *Manada* auziari buruzko liburua aurkeztzen: *Nik sinesten dizut: bortxaketaren kultura eta Sanferminetako kasua*.

Bertan, 2016ko Sanferminetako gertakizuna aztertzen da; nola bost gizon atxilotu zituzten Iruñean, denen artean neska bat bortxatzea leporatuta. «Inor gutxi geratuko zen *Manada* delakoaren berri jakin gabe, azken hamarkadako mobiliza-

zio haundienetako batzuk eragiteraino. Baina zerk bihurtu zuen gertakaria hain ikoniko?», dio idazleak. Auzia ikuspegi kritiko batetik aztertzen du Veltek. «Helburua da bortxaketaren kultura aletzea, ulertzea eta deszifratzea, aldatzeko». ||

HERNANI UDALA

«Bakoitza bere ideologiatik, baina Hernaniren alde» egiteko deia, alkateak

Legegintzaldiko azken Plenoan puntu guztiak onartu ziren. Bestalde, Luis Intxauspek, 8 urtez alkate izan ondoren, zinegotzi guztiak agurtu zituen.

MOTZ eta azkarra izan zen astearteko Plenoa, 2015-2019 legegintzaldiko azkena.

Aho batez onartu zen Musika Eskolako zuzendari eta idazkari postuetarako eskolako klaustroaren proposamena; Joxan Goikoetxeak jarraituko du zuzendari, eta Iñaki Eguren izango da idazkari. Berdin onartu zen, baita ere, udal ondasunen inbentarioa; 113.510.704,19 eurokoa da. Eta EH Bilduren aldeko eta gaitzaren aldeko abstentzioarekin onartu zen 2018ko udal kontu orokorren inguruko kontu hartzailearen azken txostena.

Azkenik, 8 urteren ondoren kargua utziko duela eta, agurtu



Txalo artean agurtu zuten Luis Intxauspe, azken Plenoan.

egin zen Luis Intxauspe alkatea: «Hernaniko aniztasun ideologikoa adierazten dugu. (...) Eskerrak eman nahi dizkizuet zinegotzi izan zaretenei eta hurrengo lau urtetan jarraituko duzueni edo berriei. Hernani eta herniarren alde la-

nean jarraitzeko eskatu nahi dizuet; bakoitza beretik, bere ideologiatik, baina helburua beti Hernani eta herniarren bizitza hobetzea izanik. Niretzat plazer eta ohorea izan da. Orain, pozik, udalgintzatik herri gintzara pasako naiz». ||

JASOTA BEZALA

Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa. Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak. Irainak, debaldeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.

Bake prozesuaren aldeko giza katea

Datorren ekainaren 8an, Bakegileek frantziar estatuarekin abiatutako prozesua indartzeko, babesteko eta Gobernuaren urrats berriak ematera bultzatzeko helburuz, gizarte zibila biltzeko deia egin dute Biarritzen.

Orain Presoak dinamikako kideek ere bat egiten dute Bakegileen deialdi horrekin, hegoaldeko herritarrok, ekainaren 8an Biarritzera gerturatzera gonbidatuz.

Deialdi honek garrantzi berezia du. Izan ere, Frantziako espetxeetan sakabanatuak ziren presoek zati handi bat

Mont de Marsan eta Lannemezaneko espetxeetara gerturatzera eragin dute orain arte frantziako gobernua eman dako urratsek, baina oraindik are gehiago eman behar dira korapilo guztiak askatzeko.

Bakegileek abiatutako prozesu honen helburua presoek auzia modu integratuz konpontzea da. Horretarako, prozesu honekiko herritarren babes eta bultzada kalean erakustea ezinbestekoa da.

2017ko abenduan Parisen egin genuen moduan, horri esker eta egun prozesuak eman dituen fruituak ikusita, hernaniarrok ekainaren 8an

Biarritzera joatera gonbidatzen zaituztegu. Hartara, hasitako bidea zapuztu gabe, aurrera egin ahal izango dugu. Frantziako gobernua eman dituen urratsak Espainiakoarentzat presio-bide bilakatu behar ditugu, Espainiako espetxeetan zehar sakabanatuta dauden presoek aldeko urratsak ematea errazteko.

Beraz, animatu eta eman izena larunbatean Atsegindetik aterako den autobusean. Irteera-ordua: arratsaldeko hirurak. Tiketak salgai Garinen.

Begoña Arondo Iruin eta Joxepi Etxeberria Iturralde

PUBLIZITATEA GOIZ-EGUZKI TABERNA



Adin guztietako gazteentzat

Goiz Eguzkiko taberna esku berrietan dago. Dagoeneko sukaldaria ere martxan daukate eta, bazkariak ez ezik, afariak ere emango dituzte hemendik aurrera. Pintxoak eta eguneko menua eskaintzen dituzte, baita aukera begetarianoa ere. Terraza zoragarria daukate gazteak eta ez hain gazteak direnak parkeatatzeko gozatu dezaten patxada ederrean.

Atzieta kalea 10 - Hernani

HERNANI AIRE GARBIA

Batzarra, asteartean

Hernanin Aire Garbia plataformak batzarra deitu du hilaren 11rako, 19:00etan Biterin. Irekia izango da. ||

ASTIGARRAGA LITERATURA

Ipuin kontari gaur, Izaskun Mujika

Hiru urtetik gorako hurrei zuzendutako saioa emango du gaur Izaskun Mujika ipuin kontalariak, 18:00etan liburutegian: *Ipuinen haria*. ||

HERNANI XALAPARTA

Finala gaur, Xalapartako mus txapelketan

Gaur jokatuko dira Xalaparta elkartearen mus txapelketako finala; Peli eta Ramon, Txema eta Goyoren kontra. Hiru eta laugarren postua lortzeko Otegi eta Bixente ariko dira, J eta Jren kontra. Sariak, ekainaren 15eko bazkariaren ondoren banatuko dira. ||

HERNANI KONTRAKANTXA

Ogia gaur, eta pelikula bihar

Datozen egunetan hainbat ekintza antolatu dituzte Kontrakantxa Gaztetxean. Gaur, 18:30etan ogia egiteko tailerra izango da. Bihar, berri, 20:30etan *Napardeath* pelikula ikusi ahal izango da, pintxo-poteak lagunduta. Astelehenean, *Hilerokoa* aurkeztuko dute, 18:00etan. ||

HERNANI MENDIRIZ MENDI

Donejakue bidetik barrena, iagndean

Gaztetxoaren irteera antolatu du Mendiriz Mendik iganderako. Biterin 09:00etan elkartu eta Zubietan auzora joango dira, handik, Donejakue bidean barrena, San Esteban ermitara iritsi eta Aginagara egiteko. ||

HERNANI AKELARREA

Akelarreari buruzko argibideak, bihar

Ekainaren 23an akelarre nagusian atera nahi dutenak bilerara deitu dituzte bihar, 19:15etan Biteri kanpoaldean. Ideien berri emango da. ||

IRAGARKI MERKEAK

Neska euskalduna, Haur Hezikuntza graduatua, urteko zaintzeko prest. **Deitu:** 695 753 292

Zerbitzaria eta sukaldaria behar dira Hernaniko taberna batean. C.V.a eta argazkia **Bidali:** bzhernani@gmail.com

LANDANET enpresak KOMERTZIALAK behar ditu. Baldintza ezin hobek: lan-kontratua, soldata finkoa, komisio altuak hilero eta formazioa enpresaren kontu. **Bidali cv** **info@landanet.net** edo **deitu 943318606**.

Lokala alokairuan, 1go pisuan. 17m karratukoa, eta komunarekin. Ofizina baterako egokia. **Deitu:** 943 27 78 51

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura... **Deitu:** 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)